

A watercolor illustration featuring four bright red apples with green stems and leaves in the foreground. The background is a collage of torn white paper pieces scattered over a textured wash of green and blue. The overall style is artistic and layered.

# *Julene Azpeitia*

## *Lehiaketa 2012*

*Ipuinak  
Olerkiak  
Bertsoak*



# Julene Azpeitia lehiaketa



2012. urtea

Argitaratzailea: \_\_\_\_\_



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento

Laguntzaileak: \_\_\_\_\_



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**  
Kultura Saila

*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren  
Kultura Sailaren laguntza jasotzen du*



KULTURA SAILA

*Izenburua:* Julene Azpeitia Lehiaketa. 2011. urtea

*Azala eta barruko marrazkiak:* Imanol Larrinaga

*Argitaratzailea:* Durangoko Udala

*Maketazio eta fotomekanika:* Gertu. Oñati

*Inprimategia:* Gertu. Oñati

*Lege Gordailua:* ????????????????????

2012ko azaroa

HITZAURREA..... 7

*Andoni Iruarizaga Amantegi*  
*Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea*

IPUINAK..... 7

BIZITZA BERRIA HASTEKOTAN ..... 7  
*Alexander Santos Larrinaga*

AITONAREN ZILARREZKO ERLOJUA ..... 7  
*Jon Loizate Sarrionandia*

AZKEN ARGIA..... 7  
*Katalin Garaita Zurikarai*

EGUNAK AGORTU ZAIZKIDANEAN ..... 7  
*Garazi Mugarza Markina*

AGATARI GUTUNAK ..... 7  
*Ekhiñe Egiguren Azjune*

OLERKIAK

BI BIHOTZ..... 7  
*Andrea Nieto Solano*

ZALANTZAK..... 7  
*Iker Bernaola Da Silva*

ARGIAREN JOANA ..... 7  
*Igor Uruburu Martinez*

GOGOAN DUT ..... 7  
*Ainhoa Urien Telletxe*

## BERTSOAK

BERTSOAK.....	7
<i>Uxia Intxausti Montorio</i>	
SUA, URA ETA POLBORA.....	7
<i>Igor Uruburu Martinez</i>	
JOLASTEN.....	7
<i>Karmele Mitxelena Etxebeste</i>	

Loreak udan ihintza bezala gustuko du Durangok euskara eta nola ez kultura. Urteak joan eta urteak etorri, udaberri guztietan loratzen zaigun lehiaketa dugu Julene Azpeitia. Harro senti gaitezke denok Julene Azpeitiak euskararen alde egindako lanaz eta, nola ez, harro senti gaitezke Durangar oro literatura eta euskara sustatzen dituen lehiaketa honekin.

Euskara eta kultura saileko presidentea naizen heinean, benetan diotsuet, poztu egiten nauela, urtero lez, liburu hau aurkezteko dudan aukera izateak. Halan, bai euskarari eta bai literaturari zabaltzen diogun bide honek aurrera egin dezan eta ez dakigun zimeldu udaberriko gure lore kuttuna. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiet bihotz bihotzez lehiaketan parte hartu duten ume eta gazte guztiei, ikastetxeetako irakasleei, epaimahaiko partehartzaileei... beraiek baitira lore honen hazi, ur eta lurra. Lan ikaragarria egin dute, horrexegatik, nire eskerrona adierazteaz gain, etorkizunean era bertsuan lanean jarraitu dezatela animatu nahi ditut: euskal literaturaren parte izaten jarraitzera animatu nahi ditut.

Besterik gabe, ongi etorria ematen dizuet 2012ko lehiaketako liburu honetara. Gonbidapena egiten dizuet, bukatzeaz duzuen ongietorri orrialde hau igaro eta gero, irakurketan aurrera jarrai dezazuen zuen zentzumenak euskal literaturaren usai eta dastamenean murgilduz.

*Andoni Iruarizaga Amantegi*  
*Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea*



*juleneazpeitia*

*lehia keta*

*2 0 1 2*





# *Ipuinak*

*Alexander Santos Larrinaga*

Irabazlea 11-12 urteko sailean

San Jose – Jesuitak ikastetxea



*julene azpeitia lehiaketa • 2012 urtea*



*Bizitza berria hastekotan...*

Asteazkenean hasi zen dena. Bai, ederki gogoratzen dut, izan ere aurreko egunean berandu arte egon nintzen Barça-Milan partidua ikusten. Ondo egin nuen lo, baina egun hartan ordu erdi lehenago altxatu nintzen buruan inguruko lana nuela. Animaliei buruzko “power point”-a amaitu gabe nuen eta eskolara joan aurretik bukatu nahi nuen. Esan eta egin. Aitaren bulegora joan nintzen (ordenagailua hantxe egoten baitzen beti aitak ni ondo kontrolatuta izateko), baina pizteko botoia sakatzerakoan, aiba! han ez zegoen inolako ordenagailurik. Agian, aitak konpontzera eramango zuen. Egia esan, azkenengo egunetan ez zebilen oso fin eta “birus” famatu horiez josita zegoen. Amari ordenagailuaz galdetu nion.

- Zer diñozu, Alexander? -galdetu-erantzun zidan berak.
- Ama, zergatik eraman duzue ordenagailua konpontzera? Justu gaur, lana entregatu behar nuen egunean -aurpegiratu nion nik.
- Ai, ume, zu eta zure fantasiak!. Ordena... zer?
- Ordenagailua, ama, or-de-na-gai-lu-a!
- Eta zer da hori?
- Ama, mesedez, adarra jotzen ari al zara?
- Benga, bizkor, Alexander, gaur ezin naiz zure asmakeriekin entretenitu.

Isildu egin nintzen. Argi zegoen ez zela eztabaidatzeko momenturik egokiena. Mikeli deituko nion telefonoz portatila -“eramangarria” esan



ohi dute batzuek- eskolara eraman zezan eta zorte pixka batekin jolastorduan amaituko nuen “power point”-a.

- Mikel?

- Bai, Alex, esan.

- Mikel, mesede bat eskatu nahi dizut. Eraman dezakezu zure portatila eskolara? Nirea konpontzen dago eta inguruko lana amaitu behar dut.

- Eramateko zer?

- Portatila, Mikel, ordenagailua. Lana amaitu behar dut eta!

- Ordena... zer?

- Ordenagailua, Mikel, ordenagailua!

- Eta zer da hori, Alex?


Telefonoa eskegi nuen; sutan nengoen. Ez zen posible. Denek nahi al zuten niri adarra jo? Ordu laurden bat falta zen eskolarako autobusa heltzeko eta arin jantzi beharra nuen, motxila eta ogitartekoa prestatu eta sakelako telefonoa hartu. Liburu guztiak arin eta txarto sartu nituen motxilan eta pare bat zati txorizorekin bete nuen ogia. Ondoren, sakelako telefonoa hartzera nindoanean, hara non goizeko bigarren ustekabea! mobila ez zen inondik agertzen. Baina harrigarriagoa zen bere ondoan egoten ziren “P.S.P”-a eta “Play Station 3”-a ere ez egotea.

Autobusean ezin nuen burutik kendu ordu erdi lehenago gertatutakoa. Oso misteriotsua zen, benetan sinestezina. Momentu batean ametsetan nengoela pentsatu nuen. Beti izan naiz oso ume fantasiatsua eta lagunek beti ameslaritzat hartu naute. Askotan “motibatuegi” nagoela esaten didate.

Autobusetik jaitsi eta eskolako sarrerarantz abiatu nintzen korrika, baina nire harridurarako ikasgelan ere ez zegoen irakaslearen ordenagailua.

- Eh!!! -esan nuen konturatu gabe.

- Zer gertatzen da Alexander? -galdetu zidan maisuak.



- Eta ordenagailua? -itzuli nion galdera.
- Zer? Ordena... zer?
- Ordenagailua. Or-de-na-gai-lu-a!
- Alexander, mesedez, eseri zaitetz eta ez esan tontakeriarik.

Nire lekuan eseri nintzen. Ez zen posible. Ez zen inondik ordenagailurik ikusten eta gelako apalak “Larousse” izeneko liburu potolo batzuez horniturik zeuden. Gainera, maisuak zerbait galdetzean ikasgela aurrera atera behar ginen eta “klariona” deitzen zioten palu zuri txiki batekin ohol beltz baten gainean idatzi behar genuen. Non demontre ote zegoen gure arbel digitala?

Asperturik igaro nituen orduak, jolastordua heldu zen arte. Korrika eta presaka irten nintzen patiora eta berriro sorpresa! Inor ez zen musika entzuten ari, inork ez zuelako mobilik ezta mp4-rik ere. Eskola osoko neskamutilak taldetan banatuta zeuden. Batzuk koloretako bolatxo batzuekin jolasten ari ziren, bolatxoak elkarren kontra jo nahian eta, beste batzuk, soka batez lagunduta, lurrera botatzen zuten limoi itxurako egurrezko pilota puntadun bat. Pixka bat urrunago, neskek soka egiten zuten eta saskibaloiz zela erdian beste ume multzo batek makurtuta zegoen beste lagun batzuen gainetik egiten zuen salto.

- Utzi ziba! -entzun nuen bat-batean.
- Zelako puxtarri polita! -beste batean.
- Txorro-morro-piko-tallo-ké señalo - hurrengoan.

Ezin nuen sinetsi. Zer zen hura! Harrituta bezain nekatuta nengoen. Beraz, arratsaldeko lau eta erdiak jo zutenean poztu egin nintzen oso. Etxera heltzean, logelara sartu eta ez zegoela makinarik gogoratu nuen. Mikeli deitu nion.

- Mikel? Ni naiz, Alex.
- Beste tramankulu arraroren bat aipatu nahi didazu, ala?

- Ez, ez, trankil ... Zer egiten ari zaren bakarrik jakin nahi dut.

- Ba, begira, oraintxe bertan Julio Vernerren istoriotxo bat irakurtzen amaitu dut. Oso polita da, irakurri behar ...

Telefonoa eskegi nion, eta ziztu bizian herriko liburutegira joan nintzen. Mikelen aipamenak burua argitu zidan. Liburutegiko apaletan arakatu eta hantxe topatu nuen bilduma: “Lurretik ilargira”, “Lurraren erdigunera bidaia”, “20.000 legoa itsaspeko bidaian”, “Munduari itzulia 80 egunetan“ ... “Pertsona batek imajina dezakeen oro, beste batzuek errealitate bihurtu ahal izango dute”, zioen liburu haren azalak. Jakin ere banekien Julio Vernek gure garaiko hainbat eta hainbat tresna eta aurrerapen teknologiko aurreikusi zituela eta arratsalde osoa eman nuen ordenagailuekin erlazionatutako aipamenak topatzen, baina zoritxarrez han ez zegoen ezer. Bai ordea urpekariak, globo aerostatikoak, espaziontziak eta planeten arteko bidaiak, baina inolaz ere ez konputadorerik. Eta Verne famatu eta jakintsu hari ez bazitzaion holako asmakizunik burutik pasatu ere, nola froga nezakeen nik aurreko egunean (eta nire bizitza osoan) erabilia nuela “ordenagailu” izeneko tresna bat?





Etsita bueltatu nintzen etxera. Ez nuen txintik ere esan, eta bizitza berri bat hastekotan oheratu egin nintzen. Biharamunean aurreko egunean baino alaiago altxatu nintzen. Bapo gosalduta eta arropa politena soinean jantzi eta gero, txukun-txukun sartu nituen liburuak motxilan eta txorizo askorekin bete nuen ogia. Ondoren, aitak bere gaztaroko oroigarriak gordetzen zituen kutxan begiratu nuen eta, nik uste bezala, bertan topatu nuen ziba, bezperan patioan ikusitako limoi moduko pilota puntaduna. Hau ere motxilan sartu nuen eskolan jolasteko asmoz. Izan ere handik aurrera bizitza berriaren ohiturak hartu behar nituen.

# *Ipuinak*

*Jon Loizate Sarrionandia*

Irabazlea 13-14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola



*julene azpeitia lehiaketa • 2012 urtea*



*Aitonaren zilarrezko erlojua*

Bazen behin ume bat aitonaren ipuinak entzuten adi-adi egoten zena. Ume hori ni nintzen, eta asko gustatzen zitzaidan nire aitonaren istorioak entzutea. Nik orain hamahiru urte ditut, eta aitonaren istorioak kontatuko dizkizuet.

Aitona, Jose Miguel deitzen da, baina biloba guztiok aitona Miguel deitzen diogu. Oso alaia da eta beti dago irribarrez. Bihotzeko gaixotasun larri bat du eta medikuak esan zigun oso denbora gutxian biziko dela. Berak ez daki hori. Bihotzeko gaixotasuna eduki arren, bihotz onekoa da jendearekin, eta beti dago amonari laguntzeko prest. Beno, etxean zegoenean bai, orain ospitalean baitago. Aitona osasuntsu zegoenean nik zortzi bat urte izango nituen, baina txikia izan arren ere, beren istorioak oso ongi ulertzen nizkion, izugarri ondo azaltzen zituelako gauzak.

Berarekin kalean paseatzera irteten nintzen bakoitzean, 500 metro inguru bakarrik egiteko ordu bete behar izaten genuen. Ez astiro ibiltzen zelako, tximista baino azkarrago ibiltzen zen orduan, baizik eta ehunka lagun dituelako eta beti zegoelako lagunekin hizketan. Orain ere, sarritan, etortzen zaizkio lagunak ospitalera bisitatzen.

Aitonak ile zuria du, beno Iau ile besterik ez ditu, eta lau ile zuri bakarti horiek beti alde bererantz orraztuta eramaten ditu, eskuinerantz. Berak kontatzen duenez gaztetan nirea bezalakoa zuen, horixka eta ugaria. Horrela agertzen da behintzat bere etxean duen argazkietan, eskolako uniformearekin soinean eta saskibaloiko baloi batekin eskuan. Nik ia inoiz ez ditut ileak orrazten, eta aitonak beti esaten dit:

“Aprobetxa itzazu orrazteko eta apaintzeko dituzun ile hori mordoxka hori, zaharra egitean niri bezala erori eta zuritu egingo zaizkizu eta!”

Aitona Miguelek aurpegia zimurrez betea dauka eta berak esaten duenez, “tximur bakoitza txarto pasatutako gertakari baten sinboloa da”.



Baina nik tximurrik zergatik ez dudan galdetzen diodan bakoitzean, erantzuna ez dakielako edo, gaiz aldatzen du. Eta ez diot zati baten berriro galdetzen.

Aitona Miguelek beti kontatu izan dizkit istorioak, eta orain ere, ospitalera joaten naizen bakoitzean, istorio zirrargarriak kontatzen dizkit. Lehen esan dudan bezala, aitonaren ipuinak entzutea asko gustatzen zait, eta istorioa kontatu ahala aurpegian keinu barregarriak egiten ditu, niri zirrara sortzeko. Batzuetan benetan gertatutakoak kontatzen dizkit, baina gehienetan ipuina kontatu ahala asmatzen joaten da. Ipuin horietako bat, jada, bi edo hiru aldiz kontatu dit, berari benetan gertatu zitzaiona, gerra sasoiko kontu bat:

Gerra zibila gertatu zenean, berak hamar urte zituen, ni baino pixka bat gaztetxoagoa zen. Bere adineko ume guztiei bezalaxe jolastea gustatzen zitzaionez, nahiz eta gerra garaia izan, etxe inguruan ibiltzen zen jolasean. Beraiek ere soldaduetara jolasten zuten. Batzuk ezkutatu egiten ziren, eta besteek aurkitu egin behar izaten zituzten. Beste taldekoak aurkitzen zituztenean, tiroaren hotsa ahoarekin egin eta ‘hilda!’ oihukatzen zuten. Berehala jolasteari utzi behar izan zioten izugarrizko burrunbada entzun zutelako. Harrituta gelditu zen, ez zekien zer ziren. Bere ustez espaziotik etorritako metalezko txori inbaditzaileak ematen zuten: ez zuen inoiz hegazkinik ikusi, eta ikusi bezain laster zarataka hasi zen beldurtuta. Bat-batean hegazkinetatik bonbak erortzen ikusi zituzten, eta umeak ziztu bizian zubi baten azpira sartu ziren. Hegazkinak nolako txikizioak egiten zituzten ikusi zuten: etxeak lurrera bota, jendearen autoak apurtu, baserriko animaliak hil... Eta Miguelek gehien maite zuen izeba ere hil egin zuten. Zorionez, Miguelen etxea ez zuten lurrera bota, baina beren lagun askorena bai.

Gertakizun latz horren ondorioz, badirudi nire aitonak fedea galdu zuela. Txikitan galdetu nionean unibertsoa nola sortu zen, aitonak esan zidan ume bihurri baten asmakizuna zela, eta behin baino gehiagotan kontatu zidan unibertsoaren sorreraren ipuina.

Hamaika urte nituela unibertsoaren nondik norakoak ikasten aritu ginen ikasgelan, baina nik ez nuen sinetsi ‘big-bang’-aren teoria hori, bai



ordea aitonaren teoria. Big-bang-aren teoria ezerezetik hasten delako eta, bat-batean, planetak eta beste astroak sortzen direlako. Eta hau da galdera: nork egingo zuen hasierako lehergai edo masa hori, eh? Aitonaren istorioan, oster, umeeek egiten dute.

Gure maisuak ordenagailuz unibertsoaren sorrera idazteko eskatu zigun, ipuinen txapelketa batean parte hartzeko. Eta nik ipuin hauxe idatzi nuen:

*Bazen behin, oraindik ezer ez zegoenean, bakarrik bizi zen mutiko magiko bat. Argia zen, baina batzuetan gauzak pentsatu gabe egiten zituen, ez zitzaiolako gustatzen pentsatzea, egia esan “alfer hutsa” zen. Bihurria ere bazen, eta asmatzen zuen guztia jolasteko erabiltzen zuen. Hilea kirrua eta horia zuen. Erraldoia zen, Lurra bezalako mila planetek bere begia ere ez zuten betetzen, imajinatu ze handia zen! Beren gorputzeko atal bakoitzak kolore desberdin bat zuen. Aurpegi urdina, gorputz gorria, hanka berdeak... Baina beren magiarekin, nahi zuen kolorea har zezakeen.*

*Bera bakarrik zegoen unibertso guztian eta aspertu egiten zen. Ideia on bat eduki zuen: beste ume bat sortzea berarekin jolas egiteko, eta ez aspertzeko. Beste haur bat sortu zuen, beren modukoa, baina azalaren kolorea gizakion kolorekoa zen goitik beheraino. Biak lagun handiak ziren, eta bien artean oso ongi pasatzen zuten. Batari zerbait gertatzen zitzaionean besteak lagundu egiten zion, benetako lagunak bezala. Egun batean, dibertitzeko petardo txikiak asmatu zituzten euren magiekin, hau da, lehergaiak. Hasierako petardoa lehertu zutenean sabelean inpresio handia sentitu zuten. Orduantxe ikasi zuten zer den inpresioa eta asko gustatu zitzairen zentzazio hori, horregatik, behin eta berriro errepikatu zuten. Lehergailuak bota ahala, beldurra eta inpresioa gutxitzen joan zitzaenez, gero eta lehergailu handiagoak erabiltzen zituzten. Azkenean lehergailu ikaragarri handi bat egin zuten. Lehergailu handi hori, eurek biak batuta baino milaka aldiz handiagoa zen, eta bakoitzaren begi normal bat lurra baino mila aldiz handiagoa bazen, imajinatu ze lehergailu erraldoia zen! Ezer pentsatu gabe, sua eman zioten lehergailu handiari. Lehergailuaren metxa sutan zegoela damutu egin ziren, baina berandu zen. Lehergailu handiak eztanda egin zuen, eta bi ume erraldoiak irentsi zituen. Eztanda horretatik sortu ziren unibertsoan dauden astroak: planetak, izarrak, asteroideak... Eta eztanda horretatik sortu da ipuin hau ere.*

Ikasturte horretan, orain kontatu dizuedan ume bihurrien ipuina saritua izan zela jakin nuenean, begiak zabaldu zitzaizkidan. Orduan gogoratu nuen aitonari oparia egin nahi niola. Berak nire adina zuenetik nahi izan zuen oparia: praktetatik eskegita eramaten diren zilarrezko erloju horietakoa. Nik horrelako erlojurik ez nuen inoiz ikusi, nire aitona Miguelek erloju denda dotore batean zenbat balio zuen galdetu zuen arte. Garestiegi agian, pentsatu nuen neure baitan, ez baitzuen erosi.

Diru hori eta nire itsulapikokoa hartuta, erloju denda dotore hartara joan eta erloju berezi hura erosi nuen. Hurrengo egunean autobusez, aitona Miguel zegoen ospitalera joan, bere gelan sartu eta esan nion:

- Tori, opari bat ekarri dizut!

Kaxa zabaldu zuenean eta ikusi zuenean berak beti nahi izan zuen erloju garesti hura zela, izugarri poztu zen eta besarkada eta muxu ikaragarri bat eman zidan, hau esanez:

- Hau ume, handia egiten zarenean zuk ere erabili ezazu mesedez, nitaz oroitzeko.

Etxera heldu bezain laster, etxeko telefonoak jo zuen, ospitaletik deitzen zuten. Amak hartu zuen deia eta, bat-batean, negarrari ekin zion. Nik ikaragarritzko sustoa hartu nuen, ez nekien zergatik ari zen negarrez





eta. Orduan, telefonoa eskegi eta besarkada handi bat emanez, hauxe esan zidan:

- Zuk badakizu aitona txarto dagoela, ba berak beste mundura joatea erabaki du.

- Hil egin da oparia eman eta berehala? -esan nion amari negar batean.

- Bai, baina ez da zutaz ahaztu; karta bat utzi du ohe gainean eta gutun-azalean zure izena dago.

Eta ospitalera itzuli ginen amaren autoan, eta karta ireki nuenean ikusi nuen bertan nik oparitutako erlojua zegoela, idatzi batekin batera. Eta bertan hauxe jartzen zuen:

“Mikeltxo maitea, ni beste mundura joan arren, beti zure ondoan egongo naiz, zure bihotzean. Erlojua zuretzako hartu, nire oroitzapen bezala. Beti zure sakelan eraman, eta ez ahaztu, erloju hau erabiltzen duzun bitartean ni ere ibiliko naiz hor goitik zu zaintzen.”

Harrezkeroztik, nirea izan da erloju hori eta nire maskota balitz bezala zaindu dut beti.



*Ipuinak*

*Katalin Garaita Zurikarai*

Irabazlea 15-16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola



*julene azpeitia lehiaketa • 2012 urtea*



*Azken argia*

Eta orduan, inguratzen zaituen iluntasunaren urrunean distira bat ikusten duzu. Hegaz, jolasean dabilen argia gero eta gertuago sentitzen duzu. Bere berotasuna nabari dezakezu. Hurbiltzen den heinean gero eta handiagoa da. Ipurtargi bat dirudi, baina ez. Airean bere hegalek konposatutako melodiarekin batera ingurua alaituz dantzan dabilen maitagarria duzu begi parean. Zuganantz dator zuzenean. Hanketatik hasi eta burura helduz zure gorputza inguratu du. Oinak apurka-apurka lurretik altxatu zaizkizu. Sinestezina dirudi, zure aurpegia harridura ikur bat da. Hegaz zabilta.

Maitagarria zugandik urrunduz doa. Gelditu eta buelta emanaz, jarraitzeko keinua egiten dizu. Birritan pentsatu gabe, hor zoaz, oraindik sinesgaitza zaizun bizipen horrek hasiera non izan duen asmatu ezinik, gogoratu ezinik.

Ingurua argitu da. Zeru urdinean barrena zoaz laino artetik. Ibilbidearen jarraipena zein den diotsun laguna beherantz abiatu da, lurrerantz. Bertan txabolatxo bat dago, ezaguna zaizun txabolatxo bat. Leiho parera hurbiltzen zara, eta oroitzapen bat datorkizu burura.

*Orain dela hogeita hamar urte, zu, leihoaren beste aldean zegoen mutikotxoa zinen. Amak behin eta berriaz esana zizun gozokiak ez zirela osasungarriak, kalte egingo zizutela. Baina zuk hain genituen gustuko, egun hartan bat erosi eta burko azpian ezkutatu zenuela. Gurasoak oheratu arte, etxe osoan isiltasuna nagusitu arte egon zinen zain, begiak zabal zabalik.*

*Iritsi zen hainbeste itxarondako unea. Astiro-astiro, eskua bururdi azpian sartu zenuen. Poliki-poliki, zaratarik egin gabe, gozokiari estalkia kendu zenion.*

Inguruan inor ez zegoela jakin arren, ezker-eskuin begiratu zenuen badaezpada ere. Kontu handiz, urrezko karamelua ahoan sartu zenuen, begiak itxiaz batera

Denbora luzean ez zenuen horrelako zaporerik dastatu. Zure mingainak gozotasuna nabaritu zuen lehendabizi, zure burua magiaz betez. Listua pilatzen zitzaizun ahoan eta magia hori eztarritik behera, limoizko ur jauzi bat bailitzan, gorputz osora zabaldu zitzaizun.

Gero eta txikiago zen gozokitxoari garratz ukitu bat igarri zenion eta zure ezpainetan desegiten utzi zenuen. Ezertxo ere geratzen ez zen unean mingainarekin ezpainen bueltan ibilbide bat marratu zenuen. Azken txapliguak eztanda egin zuen zure barrenean. Ez zen deus geratzen. Baina inoiz ahaztu ezineko zaporea izango zenuen buruan.

Zerbaitek tira egiten dizu atzamarretik. Maitagarria da, bertatik alde egin behar duzuela dio. Txabolatxo atzean utzita, bidaia magikoan aurrera zoazte. Zerua lainotu egin da. Etxez osatutako paisaia da oraingoan gomutatu zaizun esperientziaren gertalekua.

Trumoi hotsak entzun zitezkeen urrunean. Kale ilunean barrena zindoan, momentuko zure ametsetako neskari eskutik helduta. Berak zukan eragiten zuen indarra bere eskutik zurerara eta zure besotik bihotzera zihuan, gau hartako tximisten argia baino mila bider bizkorrago.

Bat-batean gelditu zineten. Begirada bestearen begietan murgildurik. Bere indarrak gero eta gehiago erakartzen zintuen, gero eta hurbilago zeunden. Gero eta hurbilago, zuen ezpainek elkar topo egin arte. Tximistaren argiak argitu zuen zerua. Denbora gelditu egin zela zirudien. Urduritasuna nabari zenuen barrenean, bihotzak bularretik salto egingo balizu lez. Urduritasuna, eta horrek zure barruan pizten zuen sua.

Trumoi bortitzenaren soinuarekin batera, zuen aurpegietatik irrist egiten zuten tantak lurra bustitzen hasiak ziren. Zure suan itzaltzen zuten tantak. Errautsetatik tximeletak hazi ziren. Gorputzeko atal bakoitzean kili-kiliak sorrarazi zizkizuten tximeletak.

Ezpainen artean haizeak aurkitu zuen bere bidea. Berriz ere zure begirada hainbeste maite zenuen neskaren begiei so geratuz.







”Joan beharra dugu” dio maitagarriak. Ez duzu mugitzeko gogorik. Neska haren ezpainen zaporea berriz ere dastatzen gelditu nahi duzu, baina ezin. Zerua argitu da, euri tantek eta eguzki izpiek sortu duten ostadarrerantz zoazte zuzen. Kolore deigarri horietan irristatuz, bueltak emanaz, saltoka, koloreak nahasten hasia zara. Nahasten, kaka-nahaste bat sortu arte. Baina azkenean argia ikusiz, kolore bakarra sortuz. Behin zure burua nahastu zen bezala. Azkenean tunel ilun haren amaieran argia ikusi zenuen, aurre egin zenion zurrunbiloari. Oroitzen zara?

*Ospitaleko leihotik begira pasa zenituen egunez oroitzen al zara? Euria egiten zuenean, parkeko putzuren batean itoko zinela sentitzen zenuen. Eguzkia ateratzen zenean, ordea, basamortuan zegoen izozka zinen. Baina azken bolada hartan ostadarra zen nagusi. Zure aurpegian irribarrea marrazten zuena. Esperantza.*

*Medikua etorri zitzaizun hortik gutxira, leihotik begira zeundela, haurrek nola jolasten zuten begiratzen. Zu nola jolasten zenuen gogoratzen.*

*- Gainditu duzu, joan da. –esan zizun orduan.*

*Zure ahotik ez zen hitz bat bera ere atera. Aurpegitik irristaka zihoan malkoak esan zuen esan beharreko guztiak. Barruko min guztiak, ezinegon guztiak, momentu latz guztiak kanporatu zituen malko hark, bizitzeko gogoari lekuan utziz. Leihotik behera askotan ikusi zenituen bezalako euri tanta bat zure masailetik behera. Euri tanta gazia, euri tanta beroa, euri tanta hark esan zion “inoiz arte” minbiziari.*

Oraingoan zu izan zara alde egiteko esan duen lehenengoa. Zure bizitzako pasarte ilun hura betiko atzean utzi nahi duzu, ez duzu gogoan izan nahi. Beti zurekin joango den arren.

“Beti zurekin”. Beti berarekin egongo zinela esan zenion amari. Bizitza aldakorra da. Gaur erabaki bat hartu arren, bihar kontrakoa egiten egon zaitezke.

*Etxeko atarian zeunden. Matela bat eskuineko eskutik zintzilik eta motxila bat zeneraman sorbalda gainean. Agur esan behar zenion amari. Zure independentzia eguna zen. Uste baino beranduago izan arren, iritsi zen etxetik alde egiteko unea.*

*Amaren aurpegian tristura zen nabari. Bere semea bazihoan etxetik, ezezaguna zuen herri txiki batera. Inoiz ahaztu ezinezko besarkada eman zizun. Bere besoetan biziki estutzen zintuen, ia arnasarik gabe utziz.*

*Berriz ere hamar urte zenituen garaira eraman zintuen, berriz ere ume sentitzen zinen. Alde egin behar zenuen, ordea. Atzerapauso bat ematea pasa zitzaizun burutik. Amatxoren kroketek etxean zehar zabaltzen zuten usaina gogoratu nahi zenuen. Usain hori deskribatzeko hitz bakarra poztasuna zen. Ama umore onez zegoela esan nahi zuen.*

*Egun hartan ez zegoen kroketa usainik. Aurrera joan behar zenuen, eta atzerapausorik eman gabe. Burumakur alde egin zenuen bertatik.*

*Mendira joan zinen egunean ez zeunden buru makur, ezta? Muino hori ikusi bezain pronto, aurpegia aldatu zaizu. Ez duzu bertara heldu beharrik, zuhaitz hori ikustean, badakizu zer etorriko zaizun burura. Hala ere, maitagarriak eta zuk, bertara hurbiltzea erabaki duzue. Zuhaitz adar sendoenean jarri zara. Han goian, eta duela hamabost bat urte, han behean.*

*Egunak ilundu zuen jada. Eguzkia mendien artean ezkutatu zen. Zuen larru biluziak belar hezearen gainean. Zuen ezpainak arnas estuen artean elkartzen ziren. Haize leunak ez zeukan zuen gorputz bitartetik igarotzeko modurik. Bata besteraren gainean, bestearen goxotasunean, emozioan, askatasunean, nahian, desioan murgildurik.*

*Ez zen larrua jotzen zenuen lehenengo aldia. Baina esan beharra dago ez zenuela inoiz horrenbeste gozatu.*

*Azpian zenuen neskaren oihuak ziren nagusi gauaren isiltasunean. Apurka-apurka, bere lepotik behera jaisten joan zinen. Bere bularrekin egin zenuen topo, eta titiburuak miazkatzen hasi zinen.*

*Amaiera gertu zen. Eztanda egin beharrean zeundeten. Jarraitzeko erregutzen zizun neskak, ez gelditzeko. Azken segundora arte gozatu zenuen.*

*Bata bestearen alboan etzan zineten, arnasestuka biak. Munduari itzulia korrika egin bazeniot bezala. Munduari ez, baina zuen buruei mila eta bat buelta eman zenizkioten gau hartan.*

*Birikiak lasaitzen joan ziren apika. Bata besteari besarkatuta geratu zineten zuhaitz haren azpian. Naturaren izarek estalirik.*

Gustura zaude bertan jarrita. Gaztea zineneko arratsalde bat dirudi, lagunekin pelikula pornoak ikusten zenituen horietako bat. Baina oraingo hau zure filma da. Zuhaitzean geratzeak ez du zentzu askorik jada. Gainera, bidaia hau zer dela eta hasi den, nolatan hasi den, eta nola jarraituko duen jakiteko irrikian zaude. Momentuz, azken galderaren erantzuna jasoko duzu. Momentuz.

*Ba al da ezer politagorik irribarre bat baino? Bai, zure alabaren irribarrea. Lau urte zituen Maddik. Parkean zebilen lagunekin jolasean. Halako batean, zugana hurbildu zen ziztu bizian. Zuk besarkatu egin zenuen eta, besoekin bera inguratzeari utzi zenionean, goxoki bat eman zenion, limoizko goxoki bat. Bere begietako dirdirak hunkitu egin zintuen, baita bere hortz zuri txikitxoek belarritik belarrira zabaldu zuten irribarreak ere.*

*Momentu hartan etorri zitzaizun gogora karameluaren zaporea, euripean dastatu zenituen ezpainena, euri tanta bat balitz bezala masailetik erori zitzaizun malkoarena. Beti zurekin joan den usaina, baita oihurik ozenena ere. Orduan konturatu zinen zure alaba ekintza horien fruitua zela, eta ahalik eta hobekien zaindu beharra zenuela.*

Pentsakor zaude. Dena hemen bukatzen den galdetzen diozu zure buruari. Bai, dena hemen bukatzen da. Hau izan da zure bizitza, hauexek zure erabakiak.

Berriz ere iluntasuna da nagusi. Maitagarriak zurekin jarraitzen du. Oraingoan benetan joan beharra duzula dio, baina lehendabizi, errealitatean zerbait duzu esateko. Begiak benetan zabaltzea gomendatzen dizu.

Jaramon egin diozu. Maddi ikus dezakezu. Nagusia da, hemezortzi urte inguru izango ditu. Urduritasuna nabari zaio. Eskutik heltzen zaitu gogo biziz. Inguruan jende gehiago dagoela konturatzen zara. Kalean zaude. Gorputzean min duzu, jasangaitza zaizun mina bularrean.

- Aita ez, ez joan. Geratu zaitetz nirekin, arren. Ez nazazu utzi. Zabaldu begiak aita, ez itzazu itxi. Geratu zaitetz, ez joan -erregutzen dizu alabak.



- Maite zaitut Maddi, txintxoa izan.

Begiak itxi zaizkizu apurka-apurka. Ez zenuen irtenbiderik. Bihotzekoak gogor astindu du zure gorputza. Iluntasunean murgildu zara berriz ere. Nirekin etortzera gonbidatzen zaitut. Maitagarria ez dago, orain, ni ikus nazakezu. Ni, Azken Argia.

\*\*\*

Zure bizitza berriro bizitzea eragingo dizun berbera nauzu. Aholku bat besterik ez dizut eman nahi. Bizi ezazu bizitza, senti ezazu, goza ezazu. Aprobetxa ezazu segundo bakoitza, ez zaitetz zure barrenean gorde. Kanpora ezazu zure alaitasuna, zure poztasuna, zure ilusioa eta baita zure ezinegona. Baina ez ezazu inoiz etsi. Ez utzi inori berak ezin duelako nahi duzun zerbait egiteko gai ez zarela esaten. Ez zaitetz inoiz inor baino gutxiago sentitu. Errespetagarria zarela erakutsi. Ez iezaiozu zure izateari uko egin. Egin jauzi, egin oihu eta egidazu kasu. Zarena zarelako, eta zarena ez bazara, nor zara?

*Ipuinak*

*Garazi Mugarza Markina*

Irabazlea 17-18 urteko sailean  
Frai Juan de Zumarraga Institutua







*julene azpeitia lehiaketa • 2012 urtea*



*Egunak agortu zaizkidanean*

1

Egunak agortzen zaizkidanean zer egingo dudan galdetu zidan atzo bilobak. Karla du izena nire alabaren alabak. Zerura joango naizela erantzun nion, duela urte batzuk aitona joan zen toki berera, eta han, kotoizko hodeietan lo egingo dudala.

Atzoko eguna ere ezabatu dut egutegitik. Ez zaizkit horrelako galderak gustatzen. Nire egutegiak “Marinaren egutegia” du izena, eta berezia da, desberdina. 12 hilabete ditu, eta hilabete bakoitzak 31 egun, hau da, nire egutegiak 372 egun ditu. Egun tristeak eta zoritzarrekoak ezabatu egiten ditut. Jada ez dut urtebetetze egunik, Sabino hil zenean malkoak masailean behera nituela ezabatu nituen 107 egunetako bat baita. Gaur, 147 egun ditu nire egutegiak. Gainerakoak desagerrarazi egin nituen.

Iraide etorri zait eta jantokira eraman nau gosaltzera. Erizaina da Iraide, nire oheko izarak aldatzen ditu, jantokira eramaten nau egunero, lorategian elkarrekin paseatzen dugu eta Marinaren egutegia errespetatzen duen bakarra da. Behin berarekin haserretu nintzen, negu gorrian gaudela esan eta leihoa itxi zidanean. Nire egutegian, uztailaren 27a zen, eta eguzkiaren berotasunak nire logela epeltzeko asmoz ireki

nuen logelako leioa. Hiru egunez egon nintzaion hitzik egin gabe, eta barkamena eskatuz etorri zitzaidanean egutegiaren berri eman nion. Haserretu nintzen eguna eta jarraian zetozen hiru egunak ere egun hartan ezabatu nituen Marinaren egutegitik.

Lurdesen alboan eseri naiz gaur ere eta bere ondoan gosaldut. Ez dut hitzik egiten berarekin, erantzuten ez zidalako utzi nion hitz egiteari. Baina bere ondoko aulkian esertzen naiz bere eskuak gustatzen zaizkidalako, eta ez dudalako ikusi berak bezala koilara heltzen duenik. Iraidek esan zidan hitz egiten ahaztu zitzaiolako dagoela isilik, eta nik, negarrari eman nion. Beldurtu egin nintzen, bai, baina ez ikaratzeko beste. Ordutik aurrera, Lurdesen inguruan nagoenean, niri ere hitz egitea ahazten zait. Isilik, begiekin hitz egiten dugu, eta gustura egoten gara elkarren ondoan, elkarri begira. Lurdes ezagutu nuen eguna ezabatuta dago nire egutegian, eta berari hitz egiten saiatu naizen egun bakoitza ere bai.

Gailetak txikitu eta katilura bota ditut, Sabinok egiten zuen bezala, horixe gosaltzen dut Sabino kotoizko hodeietara joan zenetik. Utzi ninduenean, berak egiten zituen gauzak egiten hasi nintzen, horrela alboan nuela sentitzen nuelako nolabait. Goizero berak egiten zuen eran gosaltzen nuen eta basora joateari ere ekin nion, egur bila, zaldiak bisitatzera eta perretxikotan. Hona bizitzera ekarri nindutenean ordea, basora joaten uzten ez zidatenez, pixa tente egiten hastea bururatu zitzaidan, baina ideia hori laster baztertu nuen. Basora azkenengoz joan nintzen eguna jada ez dago nire egutegian eta Sabinok utzi ninduen eguna ere ez. Martxoaren lehen egunean utzi ninduen Sabinok, eta martxoaren 30a izan zen basora joan nintzen azken eguna. Hilabete osoa gurutze handi batez ezabatuta dago.

Gosaldut ondoren, lorategian paseatzera joan naiz Iraiderekin. Hankak nekatu zaizkidanean, gerizpean zegoen bankuan eseri gara, eta urrunean Julian ikusi dut zelairik ederreneko margaritak biltzen. Zelai horretan egon nintzen behin Lurdesekin. Arratsalde osoa igaro genuen bertan etzanda. Paseatzen genbiltzala erori egin zen Lurdes. Ezin izan nuen altxatu, eta egun ederra zegoenez, pare bat metro arrastaka eraman

eta zelaixoan utzi nuen. Bere ondoan etzan nintzen. Isilik egon ginen, elkarrekin gaudenean mutuak baikara. Eta hantxe egon ginen, harik eta Iraide bila etorri zitzaigun arte. Gertatu zena kontatu ostean, errieta egin zidan Iraidek, bere bila joan behar nintzela esanez, baina nik ez nion kasurik egin.

Haserretu egin naiz Julianekin. Gaur ez dut berarekin musean jokatu, eta ez diot afaritan sobratzen zaidan ogi zatia emango. Eta egun hau egutegitik ezabatuko dut bazkalostean.

Irailaren 9a ezabatu eta siesta egin dut. Afalorduan Julianek goizean baturiko margaritak ekarri dizkit gosariko jogurtaren ontzian. Maite nauela esan dit. Eta nik ahal bezain laster afaldu eta ezer esan gabe ihes egin dut. Logelako atea itxi eta egutegiko egunak zenbatu ditut. 146 egun.

## 2

- Zorionak amona!

Oihuka eta aterik jo gabe sartu da Karla logelan. Begiratu diot, eta zerbait esatekotan izan naiz. Mutu geratzea erabaki dut. Nola azaldu Karla bezalako neskato txiki bati urtebetetze egunik ez dudala? Esanda ere, ez luke ulertuko. Ni naiz ulertzen duen bakarra eta Iraide errespetatzen duena, gainerakoentzat ez du inongo garrantzirik.

- Zorionak amona!- Lehen baino ozenago egin du oihu eta kantuan hasi da. Oraingoan ere ez diot erantzun baina altxatu eta muxu bat eman diot bekokian.

- Zer moduz ikastolan, maitea? -Berak eginiko marrazki bat luzatu dit.

- Eskerrik asko, baina badakizu amonak aspaldian ez duela urtebetetze egunik.

Harrituta begiratu nau, eta galdera zalea bada ere, ez dit ezer esan.

- Zorionak ama. Azken asteetan ezin izan naiz etorri lana dela eta, eta



gaur ez dizut abisatu, sorpresa bat izatea nahi nuen. Tori, ez da gauza handia, baina tira. -Besarkatu eta musu bat eman dit.

- Ez dugu ezer ospatzeko, Karina. Badakizu ez dudala urtebetetze egunik. Zer moduz etxean?

Hizketalditxo baten ostean, ohe gainean etzan eta lo hartu dut konturatu orduko. Ate hotsak iratzarri nau eta alabaren ahotsa entzun dut kezkatuta.

- Baina ama galduta dago, aita hil zenetik iparra galdu du. Lagun artean egoteko ohitura zuen lehen, ez zen geldirik egoten. Eta uste dut egutegiaren kontu horrek ere ez diola batere onik egiten; noraezean dabil, bere mundu horretan, eta badirudi une batzuetan ahaztu egiten gaituela. Badakit, badakit senarra galdu duela, berarekin hatera nortasuna ere galdu du, baina nik ere aita galdu dut.

- Lasaitu zaitetz Karina, kolpe gogorra izan zen berarentzat. Senararentzat bizi izan da beti, eta orain bere buruaren aurkakoa bihurtu da bere eguneroko guda. Egutegiarekin bere denbora propioa neurtzen du nolabait, bere bizitza berreraikitzen laguntzen dio horrek. Lasaitu zaitetz, berak benetan sinesten baitu egunkari horretan, eta ikusi dut, Marinaren egutegia osatu zuenetik bere auto-estimua hobera egin duela.

Une batez, nire alaba kezkatuta entzun dut, bere onetik aterata, eta horrek erruaren zama bota dit lepora. Ez nau ulertzen, egunak nire etorkizuna interesatzen zaidalako ezabatzen ditut, etorkizun horretan pasako dudalako nire gainerako bizitza, jar zaitetz nire tokian, Karina.

Gaurko eguna ezabatzeko asmoz jaiki naiz ohetik, eta entzundako elkarrizketak bularra estutu dit.

- Zer egingo duzu egunak agortzen zaizkizunean amona?-

Ez dut jakin oheburuan begira nuenik, ez naiz ohartu. Galdera bera egiten dit egutegian eguna ezabatzen ikusten nauen bakoitzean.

- Zerura joango naiz, aitonaren ondora, hura da nire tokia.

- Asko jan, bestela ez zara hain gora iritsiko. Zerua oso urruti dagoela esan digu irakasleak. Banoa, amatxo kanpoan dago.

- Joan orduko zatoz, laztana, amonari musu potolo bat eman gabe ez duzu alde egingo eta.

3

Iraide etorri zait bila askariaren orduan. Lurdesen ondoan eseri naiz, beti bezala. Isilik eta mutu. Ez diogu elkarri begiratu. Julian irribarrez begira dudala nabaritu dut jaten dudan artean, baina nik ez diot jaramonik egingo, eta platerean iltzatu dut begirada. Konturatu orduko, albora etorri zait, Lurdes eta bion artean tokia egin eta bertan eseri da. Aurpegia estaltzen didan ilea belarri ostean jarri dit laztan goxo batez.

- Sorpresa bat dut zuretzat Marina, lehengo egunekoa barka diezadazun. Askaria bukatu ostean zatoz zelaitxora, ez zara damutuko.

Kasu egingo diot koitaduari, baina ez du nire musurik sekula lortuko. Musu bereziak Sabinok bakarrik jasotzen ditu. Presarik gabe askaldu eta zelaitxora abiatu naiz. Urrunetik agur egiten ikusi dut Julian, urduri, gogoz. Hurbildu bezain laster aitzur txiki bat eman dit.

- Krabelinak landatuko ditugu zelaitxoan. Urdinak eta gorriak ekarri ditut, zeintzuk dituzu nahiago? Urdinak zuretzako ekarri ditut, zure



izenaren omenez, oso izen polita daukazu Marina. Tori, landa itzazu urdinak, zure begien kolore berekoak dira gainera.

- Ez lausengaria izan Julian. Ados, nik urdinak landatuko ditut, baina lehenik zuloak egin behar ditugu.

Hasieran haserre plantarekin ibili banaiz ere, ezin dut esan ongi pasatzen ari ez naizenik. Zulo pila bat egin ditugu, lanabes txiki hauekin. Uztai bat osatu dugu biribil-biribila. Krabelinak zuloetan sartu ditugunean zelaitxoak lehen baino ederrago geratu da, koloretakoa, bizia, zoragarria.

- Lokatzetan irauliz gozatzen duten txerriak dirudigu.

Barrez lehertu gara biok, jantziak, eskuak eta aurpegia lurrez zikinduta ditugu. Lehenengo tantek eman digute ondoren datorren euri zaparradaren berri. Lanabesak hartu eta ahal bezain azkarren joateko keinua egin dugu, baina garbitu eder baten beharrean gaudelakoan, bertan geratzea erabaki dugu azkenean. Dantzan hasteko zorian nago, aktoreek pelikuletan egiten duten gisan. Zerura begiratu dut, tantaka ureztatzen nauen zerura, eta ederra da.

- Hodeiak urez eginda daudela entzun nuen, ke bihurtutako urez. Baina ez dakit egia den, euria egiten duenean hodeiak ez direlako agortzen. Zer uste duzu zuk Marina?

- Hodeiak kotoizkoak direla, urez bete daitezkeenak.

Hotza sentitzen hasi garenean zahar etxera sartu gara. Ohean etzan naiz, lehortu gabe, Sabinoren seinaleak izan liratekeenak gogoan ditudala.

#### 4

Igerian nabil, uretan, koloretako arrainei begirik kendu gabe, eta itsasoaren gaziak ezpainak bustitzen dizkidalakoan nago. Algazko hodeiak daude itsasoaren sakonean. Sabinoren usaina du itsasoko urak. Arrainek beren hegatsak astinduz jarraitzeko eskatzen didate, eta gutunez betetako zulo sakon batera naramate. Sabinok itsasoan zela





idatzi zizkidan gutunak dira, itsasoan ez dago postaririk, itsasora bota zituen idatzi zizkidan gutunak, nik itsasertzean jaso nitzan.

Eta han ikusi dut, Sabino. Itsasoak lepoa estututa ikusi dut, ito egin du itsasoak, hondoratu, biriakak itsasoratu ordeztu, itsasoa biriketatu zaio. Berari deika hasi naiz, garrasika, eta ni ere urez betetzen hasi naizela sentitu dut, eta orduan koloretako arrainak ni beste ikaratu dira, eta ihes egin dugu itsasoaren iluntasun gordinetatik, eta aharrasit egin duen unean airezko itsasoan aireratu gara, eta aireratzeaz batera koloretako arrainak kaio bihurtu dira.

Izertitan esnatu naiz, bustita jarraitzen dut oraindik, eta malkoen gaziak ezpainak busti dizkit. Ez dago gure bameko iluntasuna baino maltzurragorik, eta Sabino ito duen zulo hori da nire bameko iluntasuna orain. Betiko amets gaiztoa. Egutegira begiratu eta azaroaren 30a bilatu dut, orduan oroitu naiz, Marinaren egutegian ez dagoela jada 30 zenbakirik. Sabinori gutun bat idatzi eta itsasora bota dezakedala bururatu zait.

- Zer amestu duzu, amona? -Karlak ezustean harrapatzen nau beti.
- Itsasoak beldurtzen nauela eta zerura igo nahi dudala.
- Aitona Sabino itsasoak irentsi zuen ezta?

Une horretan bertan, Iraide sartu da Iogelara, Karinarekin batera, aztoratuta, eta ez dit Karlari erantzuteko astirik utzi, eskerrak.

Errieta egin dit, bustita ohean etzatearren. Kontu horiek txikikeriak direla eta ongi sentiarazten nautela esan badiot ere, ez dit kasurik egin, hortaz, neuk ere ez diot egun osoan egingo. Arropak erantzi eta bainuontzian garbitu nau, bitartean Karinak izarak aldatu dizkit. Bien artean barruko arropak eta atorra jantzi eta ilea Iehortu didate. Galderez bete dute logela, galderez eta errietaz. Baina ez entzunarena egin dut. Iloba utzi didate logelan, eta kanpora atera dira, hitz egitera.

- Aitona zeruan dago, baina gutunak idazten dizkizu oraindik?
- Jakina idazten dizkidala. Baina batzuk bidean galtzen dira, eta horregatik joan nahi dut berriz berarengana.



- Nolakoa da zerua amona?
- Zerura iristen direnek bakarrik dakite hori, eta zerura iristeko bide luzea egin beharra dago.
- Nolako bidea?
- Emandakoa jasotzen hasten zarenean, zerua egun gutxiren buruan atzamar puntekin ukituko duzu. Adinaren bidea da, maitea, baina ez honenbeste galdera egin. Nahi baduzu, bion artean gutun bat idatziko diogu aitonari, ados?

Baiezko keinua egin dit buruaz. Eta paper zuri batean marrazki bat egiteari ekin dionean, gutuna idatzi diot Sabinori.

## 5

*Kaixo maitea:*

*Gaur arratsaldean zurekin egin dut amets, eta airezko itsasora bultzatu nauzu. Marinaren egutegian egunak agortzen ari zaizkit, urtetik urtera, eta urteek egunek inoiz ezagutuko ez dituztenak irakasten dizkigute. Hegoak astintzen hasteko ordua hurbiltzen ari delakoan nago. Beharbada espero baino lehenago elkartuko gara, Sabino.*

*Julianek maite nauela esan dit, litekeena heldu zaio, berarekin pasa dut arratsaldea, zelaitxoan krabelinak landatzen. Baina litekeena heltzen denean, zitekeenak egin du ihes. Behera begiratzen baduzu, beharbada gure zelaitxoa ikusteko moduan izango zara, orain lehen baino koloretsuago eta ederrago baitago. Hemen nagoenetik hainbat aldiz errepikatu diot senarrarengana eramango nauen kotoizko hodei zuriaren zain nagoela, ez dut berak ni modu horretan maitatzerik nahi, eta hori esaten diodanean, gaur Iraide eta Karinak errieta egin didatenean izan dudan jarreraren antzekoa erakusten du, ez dit jaramonik egiten. Uste dut denbora galtzen ari dela, eta nik ez daukat berari oparitzeko nahikoa denbora, egunez egun agortzen ari zaidalako.*

*Lurdesek ez ditu egunak bereizten, eta egun guztiak berdinak iruditzen bazaizkigu, une politak hautemateko ahalmena galdu dugula esan nahi du horrek. Isilik jarraitzen du, koilara hartzeko duen moduak betikoa dela salatzen*

*du oraindik, eta horrek lasaitu egiten nau, hitz egiten duen Lurdes ezagutzen ez badut ere.*

*Karla dut ondoan, zuri bidaltzeko marrazkia egiten ari da, eta gure alaba kanpoan dago, Iraiderekin hitz egiten. Beti bezain eder daude gure neskak. Gaur ere, joan aurretik esango diet maite ditugula, ez kezkatu.*

*Hamabost minutu daramatzat zuri gutuna idazten, eta minutu batean egun asko daudela esaten zenuen beti. Ez zenuen arrazoirik falta, hitz hauek hainbat egun ezabatzen lagundu baitidate. Eta egunak ezabatzeak zureganantz narama, zerura, ito zintuen itsasotik urrun.*

*Besarkada bero bat, egun batzuk barru ikusiko gara. Maite zaitut.*

*Marina.*

Karlaren marrazkia eta nire gutuna gutun azalean sartu eta mingainaz bustita itxi dut. Azalean bere izena idatzi eta Karinari eman diot, hemendik ateratzean postontzira bota dezan. Keinu arraroa egin badit ere, besterik gabe gorde du poltsan. Musu bana eman eta maite ditudala esan diet, Sabinori agindu diodan moduan, eta Iraideren ondoan jantokirako bidea egin dut. Afaltzeko ordua da.

6

Astebete igaro da jada senarrari gutuna idatzi nionetik. Eta oso aste berezia izan da, egun bakoitza hilabete desberdin batekoa izan baita ia-ia; bi egun urrikoak, bat azarokoa, otsaileko beste bat, maiatzeko bat eta abuztuko bi. Egun bakoitzeko urtaro bat izango banu bezala sentitu naiz.

Gaur goizean beste erizain bat etorri zait Iraideren ordeztu. Beste Iraide deitzea bururatu zait. Gosaltzera lagunduko nauela esan dit, baina nik Iraideren berri jakin gabe ez dudala gosalduko bota diot, haserre eta harrokeriaz, informazio pixka bat emateko mehatxua eginez bezala. Eta gaixorik dagoela, sukarra duela, baina egun batzuen buruan berriz itzuliko dela, eta berak eramango nauela jantokira. Horixe erantzun dit.

Karina eta Karla etortzekoak ziren goizean, bihar etorriko direla esateko deitu omen dute.

Lurdesen ondoan eta Julianen parean eseri naiz. Eta hirurok gaude mutu, Lurdes hitz egiten ahaztu zaiolako eta Julian eta biok Lurdesenganako errespetuagatik.

Bazkalorduren aurretik, “seietara” jolastu dugu hirurok. Orain arte Lurdesekin bakarrik jolasten nuen jolas honetan, baina bi pertsonaren artean joko honek zentzurik ez duela ikustean eta Julianekin adiskidetzean, elkarrekin jolastea erabaki dugu. Onartu beharra dago, Julian, Lurdes eta biok baino hobea dela, tranpak egiten dituela hainbat aldiz aurpegiratu diogun arren. Une isila izaten da, gosariko momentuaren antzekoa, hala ere, gure ezpainak garrasika aritzen dira eztarriak mutu dirauten artean. Orduak ziztu bizian igarotzen dira kartetan jolasten ari garenean, izan ere, konturatu orduko bazkalordua iritsi da. Hirurok batera bazkaldu dugu, berriz ere, eta soberan gelditu zaidan ogi zatia Juliani eman diot.

Sabinorentzako gutuna idatzi nuen, baina badakit ziurrenik ez zitzaiola iritsiko, helbiderik idatzi ez nuelako. Egia esan, ez dakit zeruko helbidea, eta ez dakit postaria nola igotzen den haraino, Karlari azaldu nion moduan, adinaren bidea egin behar delako zutaberik gabeko eraikin horretara heldu ahal izateko.

Ez dut uste munduko amonarik hoberena izan naizenik, ez ditudalako inoiz nire bilobarentzako kroketa goxoak egin, berak lagunei amonaren krocketak paregabeak direla esateko bestekoak, baina badakit ahal dudana egin dudala, eta hori ez da gutxi. Kroketa edo babarrun goxoek ez dutelako elkarrekin idatzi eta marraztutakoak baino maitasun gehiago ematen. Ama bezala balio izan dut, eta emazte ona izan naiz. Uste dut, bizitzako etapa guztiak igaro ditudala jada, edo igarotzeaz naizela.

Eskegita dagoen txirrina jo dut eta Beste Iraide etorri denean, paper zuri bat ekartzeko eskatu diot, hemengoak agortu zaizkidala eta. Alaba eta biloba bihar etorriko direnez, badaezpadako ohar bat utzi nahi diet, eta gaixo dagoen Iraideri ere bai, zahar etxean galdu ez naizela jakin dezaten behintzat.



“Kotoizko hodeietara noa” idatzi dut Beste Iraidek ekarritako paper zurian. Txiki txiki geratu arte tolestu eta urez betetako edalontzian sartu dut. Itsasoa behean utzi eta hodeietan amets egin nahi dut. Eta orduan, otsailaren 31 egutegitik ezabatu dut. Marinaren egutegian ezabatu gabe zirauen azken eguna. Ohean etzan eta berehala itxi ditut begiak, egunak agortu zaizkidanean.

*Ipuinak*

*Ekhiñe Egiguren Azkune*

Irabazlea 18 utetik gorakoetan





*julene azpeitia lehiaketa • 2012 urtea*



*Agatari gutunak*

## I. GUTUNA: AMAPOLA ZELAIAK

Donostian, 2010eko ekainaren 5ean.

Agata maitea;

Ez da hau idazten dizudan lehen gutuna, baina bai postontzian uztera ausartuko naizen estrainekoa. Ez dira asko izango, badakizu, kosta egiten zait edozer hitzez adieraztea. Baina ez naiz kasualitatez ari, beharrezkoa dudalako idazten dut eta idazten dizut zeuri.

Idatzita uzten duguna ez da galtzen. Ez da ezereztan, ez da alferrikakoa. Irakurtzen duenak, irakurtzen duenean gogoratzen du. Berreskuratzen du memoriatik. Idaztea ere, neurri handi batean, memoria ariketa soila baita.

Eta oroitzen hasita, Agata gogoan al duzu zein kolore hartzen duten leihoan utzitako gereziek? Kolore gorria, gorri gerezia. Berezia. Gorri-gorria. Fruitua baino zerbait gehiago dena. Gorri horrexen inguruan idazten saiatzen naiz, behin eta berriz, koloreak barneratzen duen eta ez duen guztiaz. Saiatzen naiz memoriatik berreskuratzen kolorea, baina ez da erraza eta batzuetan ahaztu egiten zait esan nahi dudana. Memoria galtzen dut.

Gerezien kolore gorria aipatzearekin amapola zelaiak datozkit gogora; mendia mahai-oihalez estaltzea bezala zela esaten zenidan zuk. Gogoratzen? Bernard-en etxetik herrirako bidea egiten genuenean,

korrika zeharkatzen genituen zelaiak, estropezu egin eta lore lastairan luzetara erori arte. Bero sapa egin ohi zuen uda haietan zelaiek hezetasuna mantentzen zuten eta lore artean etzaten ginen hozkirria sentitzera. Londresera bidaia egin genuenean, eskola amaitu berritan, bertako autobusekin alderatu nahi izan zenuen zuk amapola zelaien gorria. Baina ez nizun utzi. Ez zegoen lore haien gorria bezalakorik. Hain gorri hezerik.

Gorritasun hori Lukasek ere sumatzen duela esango nuke.

Lukasek urte bi t'erdi zituen koloreak bereizten eta koloreen izenak ikasten hasi zenean. Haurreskolan oso haur bizia zela esaten zidaten, azkarra Lukas, beste haurrek egiten eta esaten ez zituztenak egiten eta esaten zituelako. Gogoan dut garai hartan haur batek zauria egin zuela jolasean eta eskua odolez ikusita izutu. Lukasek berehala atera omen zion irria, odolak gerezi kolorea zuela eta barrez hasi zirela lagun biak segidan. Irakasleak harrিতuta aipatu zidan pasartea, pozik. Niri, ordea, eman zidan zer pentsatua.

Zergatik lotu ote zituen Lukasek gereziak odoletan zen zauriarekin?

Amapolen gorria Londresko autobusekin identifikatzeak bezain deseroso sentiarazi ninduela oroitzen dut. Ez niola irakasleari kontaketa amaitzen utzi. Irudimena tresna baliotsua zela esanaz aldegin nuen.

Zein zaila den koloreak bereizten ikastea, izendatzen asmatzea, Agata. Barneratzen duten guztia ulertzea.

Baina esan, oroitzen al duzu leihoan utzitako gereziek hartzen duten kolore gorria? Galdera horrekin utziko zaitut, hausnar dezazun isilean, ilun zein argitan. Berehala oroituko duzula badakit. Ziur dakit.

Bitartean, amapola zelaietan etzanda, kiribilduan, toleska irudikatuko zaitut. Badakizu, memoriak huts egiten didan artean imajinatzeak salbatzen nau. Salbatu izan nau beti. Irudimena baita ahanzturaren kontrako babesik zuhurrena. Ez al duzu uste?

Besarkadak, bihotzez.

*Martina.*

## II. GUTUNA; HELDULEKU BILA.

Donostian, 2010eko urriaren 22an.

Agata maitea;

Eta han, hodeiertza amaitzen den marra hartan, ba ote da mundurik? Bidea bukatzen den lekuan ezereza al dago? Ea hala balitz, ezereza ba al da bizia? Mundua? Eta zein unetan uzten diogu mundua izateari?

Galdera asko ditut. Eta galderak, erantzun asko bezala, memorian galtzen zaizkit. Zaila da guztiak oroitzea. Askotan gertatzen zait. Eta zuri?

Baina egin dezadan atzera. Ekar dezadan orrira senarra hil hurrengo egunerokoa. Egun hauetan gogoan dudana. Idatziko dut zuretzat, jakin dezazun, eta niretzat, oroit dezadan. Uste nuena baino gehiago kostatzen baizitzaidan Ferminen ausentzia ulertzea. Eta ez naiz onartzeaz ari. Ulermenaz ari naiz. Konpreniezina baita alboan duzun heldulekua, lagun ezinbestekoa, betirako joan dela sinista. Asimilatzea. Sentitze soil.

Zurekin ere antzera gertatu zitzaidan. Horregatik uste nuen, bigarren aldi hartan, gorputzak eta buruak beste modu batera erantzungo zutela. Baina ez. Maite ditugunon heriotzak mina eta hutsunea sortzen du beti. Ezinbestean.

Lukasek ere ezin zuen ulertu. Isilik pasa zuen denboraldi luze bat, baina begiradan sumatzen nion. Begiekin esaten zuen guztia; *“Ezin da ezereztu aitaren presentzia une batetik bestera, ezin da ahaztu besterik gabe.”* Eta halakoetan, ohartzen gara, ez garela zerbait fisikoa, materia hutsa baino zerbait gehiago garela. Izan direla galdu ditugun horiek; gure memorian irauten dutela bizirik.

Ferminen hitzak dabilzkit azkenaldian buruan, Agata. Blaustakoan azaltzen zaizkit, edonoiz eta edonon, zertan ari naizen axola gabe. Eta oroitzen dut, gazteak ginela, aitari loreak jartzera lagundu zidala behin. Donostiako hilerria handia da, mendigain batean dago eta ni, abandonatua sentitzen nintzen erabat paisaia arrotz eta mingots hartan. Ferminen eskutik heldu zidan. Eskua estutu; goxo, maitekiro. Eta nire

mina arindu nahian-edo, begietara begira, zintzo bota zidan; “Bizirik egotea anekdota hutsa da, Martina. ... Ez gehiago pentsatu”.

Zurbil geratu nintzaion, entzuten nuena sinetsi ezinda. Ferminek jarraitu zuen hitzak xuxurlaka; “Ez al zara ohartu... gure aurretik hildakoen eta oraindik jaio gabekoen batura egingo bagenu, une honetan bizirik gaudenon zifra erabat ezdeusa da. Estadistikoki ia existitu ere ez gara egiten. Zertarako kezkatu... Probabilitatearen portzentzaia infinitesimala gara. Normalena ez bizitzea da, Martina, hilda egotea. ... Eta hori da guztia”.

Galduta sumatu nuen neure burua. Heldulekurik gabe. Noraezean dabilen naufragoa ni. Gogoetak ikara sortu zidala oroitzen dut; izua, mina. Heldutasunera bortizki abandonatu duten haurra sentitu nintzela bat-batean.

Ferminen heriotzaren ostean antzera sentitu nintzela esango nuke, Lukas eta biok abandonu beraren sentsazioa izan genuela. Eta nik ezin hitz haiek burutik kendu. Behin eta berriz egiten dute talka neure barnean.

Fermin ahazteko aukera ezdeusa dela esango nuke, Agata. Errealitatea saihestea estadistikoki ez dela posible. Izan garena garella ezinbestean. Fermin ere badela Lukas eta bion izatearen zati handi bat. Eta gu ere, izango garella inoiz beste batzuen izatearen parte.

*Martina.*

### III. GUTUNA; HERIOTZAREN KOLOREAK

Donostian, 2010eko abenduaren 15ean.

Agata maitea;

Gaur ospitalera eraman nau Lukasek. Hartaz jabetu naiz autobusetik jaitsi eta eraikin zurrunaren aurrean errotoeloei begira topatu dudanean neure burua. Nahiko dorpea nabil azkenaldian. Ez dut guzti-guztia



oroitzen. Bizitza ez da jarraia, hutsuneak ditu. Eta ohartzen naizen bakoitzean izutu egiten naiz. Halatsu autobusetik jaitsi garenean ere eta Lukasek eskutik heldu dit, eskua estutu dit; goxo, maitekiro. Bere aitak egiten zuen bezala. Itxarongela batean aurkitu naizen arte.

Ospitaleak kolore zaporegabea du. Artifiziala. Usain edota gorputz gabea. Ez urdin ez berde den eremua zehaztugabea daude itxarongeletako hormak. Eta han, erizainak zure izena esan zain zaudenean, zenbaki hutsa baino are gutxiago zarela sentitzen duzu. Ospitalean denok garela berdin, huts, ezerez. Denak garela dorpeak, akastunak; memoria galtzen dugula guztiok. Gure bizitzak ez direla jarraiak, perfektuak; hutsuneak ditugula geure izatean bertan.

Ez nuke zer eta nola gertatu den zehatz azaltzen jakingo, baina gizon gaztearen aurrean nengoela datorkit gogora. Zaporegabeko gela laukian. Eta hala, neuri ari zitzaidala hizketan, eskuetan erradiografiak, diagramak eta hainbat orri zirriborrodun zituela. Ez diot guztia segi. Edo agian, oroitzen ez dudalako da, baina gogoan dut Lukasek beste behin ere eskua estutu didan unean, zeure oroitzapena etorri zaidala, Agata. Amapola zelaia. Kolore gorria. Gorri gerezia. Eta ospitaleetan koloreak falta direla ohartu naiz. Halaxe esan diot gizonari. Ez dakit ulertu duen.

Gizona sendagilea dela jakin dut gero. Lukasek, etxean ginela, lasai egoteko hitzak xuxurlatu dizkidanean. Eta koloretako pilula bi eman dizkit ahora; bi pilula gorri. Ospitalean eman omen dizkidate.

Eta halere, esango nuke, sendagileak ez duela ezertxo ere ulertu.

Bihotzez.

*Martina.*



#### IV. GUTUNA; HAIZEA ALDE ALA KONTRA

Donostian, 2011ko martxoaren 12an.

Agata maitea;

Sumatzen al duzu haizea zauden leku horretatik? kusten al duzu nola inarosten dituen zuhaitzak? Egunkari orriak? Itsasoa? Zer da ikusten duzuna? Ikusten al nauzu? Ikusten al duzu ezer?

Haizea alde ala kontra, Agata. Hortxe gakoa. Paulari begira ohartu naiz.

Paula Lukasen alaba ttipia da. Ilea xerloka du arpegiaren alde banatara eta begi urdin handiak. Arrainontzi bien pare. Egun hauetan eman ditu bere lehen urratsak eta bisitan etorri zaizkit, Paulak oinez erakutsi nahi omen zidan.

Korridorean egin dugu proba. Beste geletako jendea ere irten da Paula ikustera.

Korridorea luzea da eta amaieran leiho handi bat du. Handik ikusten dut nik ilargia batzuetan.

Lukasi helduta hasi gara biok lehen urratsak ematen eta Paulak berehala egin du ihes. Blaustakoan ematen ditu pausoak. Haizea alde balu bezala, Agata.

Gero, alde egin behar izan dutela dut gogoan, presaka zebiltzala. Lore sorta bat utzi didatela mahai gainean oroigarri. Margaritak, liliak, arrosak. Kolore anitzetako loreak.

Leihora arrimuan haizea sumatu dut gero. Nire masailetan irmo.

Haizea kontra izango banu bezala, Agata.

*Martina.*

## V. GUTUNA; GEREZIONDOAK LORETAN

Donostian, 2011ko apirilaren 10ean.

Agata maitea;

Oroitzen al duzu Jerteko bailaran autoa gelditu genueneko hura? Nik bai. Atzo bertan izan balitz bezala oroitzen dut. Noraezean gindoazen eta elurra iduri zitzaigun lehen begiratuan. Hura ezustea; autotik jaitsi eta gereziondoak loretan.

Eta oroitzen al duzu gerezi haien kolorea? Kolore gorri gerezia? Nik bai. Batzutan hori besterik ez dut gogoan. Zeure izena ere ahazten zait inoiz, Agata. Agata. A-ga-ta. Baina gerezien kolorea ez. Gereziondoak loretan. Jerteko bailara. Apirila.

Apirila da. Lehentxeago etorri zaidan gazteak esan dit. Haurra zekarren besoetan. Haur ilehoria. Arrainontzi begiak zituen haur panpoxa. Lore sorta bat ekarri didate eta margarita, lili, arrosa artean amapola gorri bat begiztatu dut. Huraxe eman diot neskatoari. Gustatu zaio. Amapola zelaiak aipatu dizkiot eta zuk, Agata, amapolen gorria Londresko autobusekin alderatu zenueneko. Barre txiki bat oparitu dit, pozik.

Gero, nire seme Lukasen pasarte kontatu diet biei. Lukasek haurtzaindegiko lagunaren zauria gerezien kolorearekin nahastu zueneko. Arretaz entzun didate. Neskatila ilehoriak barre txikiak egin ditu berriz eta esango nuke, gazteari malko gazi bat erori zaiola masailera, baina ez nuke zehatz esaten jakingo. Agian beste oroitzapenen batekin nahasten ariko naiz, unereren batean nire seme Lukasen aurpegia iduri baizait gaztea. Baina Lukas ez dago hemen. Ezin du Lukas izan. Halaxe esan diot.

Arratsaldean sendagilea etorri da. Sendagilea dela esan dit eta pilula gorriak ea gustoko ditudan. Ez dudala gehiago pilularik beharko eta lasai egoteko. Ez diot ulertu. Eskua estutu dit; goxo, maitekiro. Ferminek egiten zuen bezala.



Apirila, Agata. Eta gereziondoak loretan. Amapola zelaiak.  
Kolare gorria.

Amapola zelaietan etzanda, kiribilduan, toleska ikusten zaitut.  
Gerezien gorria deskribatzen. Badakizu, memoriak huts egiten didan  
artean imajinatzeak salbatzen nau. Salbatu izan nau beti. Irudimena baita  
ahantzuraren kontrako babesik zuhurrena.

Hasi naiz ametsetan, lokartzen. Sentitzen zaitut gertu, gero eta  
gertuago. Zurekin elkartzeko unea heldu balitz bezala. Eta haizea alde  
zugana urratsak emateko.

Hau poza, Agata.

Zatoz.

Goazen.

*Martina.*





# Olerkiak

*Andrea Nieto Solano*

Irabazlea 11-12 urteko sailean

Landako Eskola



*julene azpeitia lehiaketa • 2012 urtea*



*Bi bihotz*

- Bi bihotz.
- Bi bihotz?
- Zurea eta nirea.
- Biona.
- Biona?
- Bikoitza dena.
- Bikoitza dena?
- Infinitoraino heltzen dena.
- Infinitora?
- Gehiago ere.
- Noraino?
- Hori ezin da jakin.
- Zergatik?
- Nire zureganako maitasuna oso handia delako.
- Oso handia? Norainokoa?
- Zerua baino altuagoa.
- Altuagoa?
- Ezin dut kalkulatu, oso handia da zureganako sentimendu hau baina esan ahal dizut baietz, handiagoa dela sentitzen dudana zerua bera baino.






# Olerkiak

*Iker Bernaola Da Silva*

Irabazlea 13-14 urteko sailean  
San Antonio – Santa Rita ikastetxea



*julene azpeitia lehiaketa • 2012 urtea*



*Zalantzak*

Atzo kalean ikusi zintudan,  
zure lagunekin joan zinen  
eta agur lasai batekin  
agurtu ninduzun.  
Momentu horretan jakin nuen  
nor zen nire bihotzaren jabe,  
jada zutaz pentsatzea bakarrik etortzen zait burura,  
ezin naiz zutaz ahaztu.  
Ez dakit zer egin,  
ideiak gora ta behera,  
aurrera ta atzera...  
Hain nahastuta nago...  
Bihar ikusten zaitudanean  
zer egin dezaket?  
agurtu, ez agurtu...  
Zelan egingo diozu aurre zuk nire erantzunari?  
Hain korapilatsua da maitemintzea...  
Ez dakit zer pentsatzen duzun nitaz,  
baina orain dakidan gauza bakarra  
zu maite zaitudala da.



# Olerkiak

*Igor Uruburu Martinez*

Irabazlea 15-16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola





*julene azpeitia lehiaketa • 2012 urtea*



*Argiaren joana*

Ilargiaren joanak argia ekarri ohi du,  
baina ez beti  
1937ko maiatzaren 31, Durango  
Andra Mariako elizak itzal berezi bat dauka  
Zikoinek ere sumatu dute  
Hauek ere ihes doaz  
Baina hegaz egiten duena, hegaz dator  
Ez dira zikoinak, ezta argia  
Oraingoan beldurra da haizeak dakarrena  
Erljioaren deiak, egunero lez, elizara erakarri ditu sinestunak  
Erljioa, gaurkoan ez da salbazioa  
Errezu gorrek ez dute sumatu ikararen hotsa  
Kantu itsuek ere ez  
Otoi mutuek ezta  
Laino ilunak gailendu dira euskal zeruetan barrena  
Hasi da euri jasa  
Ez da euri soila, su euria baizik  
Eta zertarako errezoak?  
Hauts ziren eta hauts izango dira  
Baina oraingoan sua besterik ez  
Sua etxez etxe ate joka  
Sua kalez kale oihuak isilaraziz  
Arimak zentzuaren bila dabiltza  
Eta zentzuak zikoinaren joanarekin egin zuen ihes  
Zergatik? Zertarako? Nork?  
Laino ilunak desagerrarazi ditu denborak  
Lehen ondasun oparo zena, desertu bihurtu da  
Hondakinezko desertu bat  
Zikoinak eta argia ez dira denbora baten itzuliko  
Bitartean, berriro hastera



# Olerkiak

*Ainhoa Urien Telletxe*

Irabazlea 17-18 urteko sailean  
Frai Juan de Zumarraga Institutua



*julene azpeitia lehiaketa • 2012 urtea*



*Gogoan dut*



Zuhaitzen adarretatik erortzen ziren  
ur-tantei begira egotea gustuko nuela;  
gogoratzen naiz  
euri egin berriaren usainak  
begiak itxiarazten zizkidala,  
bestelako unibertsoetara bidaiatzera behartuz.

Akordatzen naiz  
euriaren azpian bustitzea baino ez nuela desira,  
nahiz eta amonak  
ezkaratzeko leihotik behin eta berriro sartzeko agindu,  
nik hantxe jarraitzen nuen setati,  
euri tantaren batean libertatea aurkitu nahirik.

Akorduan daukat,  
leihoa zipriztintzen zuten euri-urek  
dibujatzen zituzten itxurak asmatzen pasa nituela  
udazkenean igandeetako arratsalde aspertuak.  
Auzoko zelaiak inguratzen zituzten burdin harizko hesietan  
zintzilik geratzen ziren lainoen haserrearen ondorioak.

Gogoan dut  
euria gelditu eta gero  
eguzkia irtetea itxaroten nuela,  
fusio batean bezala  
ortzadarra sor zedin,  
elaiek ere pausatzeko lekua izan zezaten.  
Urrunean zakur deslaien zaunkak entzuten nituen;  
sagar gorrien dilinda,  
pagadi zaharren zurrumurru isila,  
haizearen soinua,  
bizirik zerraien herri bateko bihotz-taupadak.  
Guzti hori gogoratzean,  
bizitza ederra zela akordatzen nintzen,  
denboraldi batean merezi izan zuela.  
Noizbait polita izan zenaren gomuta daukat.  
Besarkadak ere gustatzen zitzaizkidala.

Gogoan dut.  
Ez dakit zenbat jaso edo eman nituen,  
Eta zer?  
Ez dakit euripean izan ziren,  
baina zer?  
Dakidana da  
guztiak benetakoak izan zirela,  
ez zela izan faltsukeriarik,  
Derrigortasunik.  
Nahi genuelako egin genuen,  
Eta ez protokoloak hala eskatzen zuelako.  
Noizbait polita izan zen bai,  
are politagoa da,  
orotzean irribarrea merezi duten une horiek gogoratzea.



# Bertsoak

*Uxia Intxausti Montorio*

Irabazlea 11-12 urteko sailean

Landako Eskola



*julene azpeitia lehiaketa • 2012 urtea*



*Bertsoak*

Udako egun baten  
laurok pozik geunden,  
egun oso ederra  
zela zirudien,  
lagunekin lotuta  
eskolan nengoen,  
bizikleta hartuta  
haruntz joan nintzen.

Handik piska batera  
denok hantxe ginen,  
bidegorrian zehar  
pozik paseatzen,  
errekara jaistea  
aipatu genuen,  
baina nire lagunak  
jausi egin ziren.

Eskerrak zegoela  
gizon bat ertzean,  
ikusi zituela  
zeudela uretan,  
eta modu askotan  
saiatu ostean,  
ekarri zituela  
bere besoetan.





# Bertsoak

*Igor Uruburu Martinez*

Irabazlea 15-16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola



*julene azpeitia lehiaketa • 20012 urtea*



*Sua, ura eta polbora*

Belainoan somatu daiteke  
itsas guda ilunena  
piratok aspaldi entzun dugu  
kañoiaren hots ozena  
ospea eta sona  
polbora eta rona  
itsasoetan barrena  
oinazea bihurtuko dugu  
lehen askatasuna zena

Borrokarako aukera dator  
ez dugu emango ezetza  
mundu osotik ikusiko da  
gaur gure bandera beltza  
su garra begietan  
sugarra herrietan  
sutan armada ingelesa  
guk gure baitan daukagulako  
itsasoaren jabetza

Gure presentzia beti izan da  
hondamendien antzera  
itsasoak guretzat uztea  
zuretzat askoz hobe da  
ni piraten errege  
min egiten naiz trebe  
olatuekin batera  
goazen lekutik goazela  
eguna gau bihurtzera

Ez bikingo, ezta tenplario  
ezta ere berebere  
borrokan trebeenak gu gara  
beti hausten legezlege  
altxor ooren truke  
bizitza emango nuke  
familia saldu ere  
oztopoak paretik kenduaz  
aberastea dugu xede

Nire iragan hotz ta iluna  
ezin dezaket makila  
ta horregatik beti joan naiz  
etorkizunaren bila  
sorbaldan dut lora  
ta emanaz tragoa  
amaitu dut ron botila  
nire buruko kezka ahazten  
beti izan naiz abila

Jaun eta errege beti izan naiz  
ozeano ilunean  
baina herioren aizto zorrotza  
dago nire garunean  
ta pirata mitiko  
izango naiz betiko  
azken hitzaren unean  
historian mito bat izango naiz  
zuen etorkizunean



# Bertsokak

*Karmele Mitxelena Etxebeste*

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



*julene azpeitia lehiaketa • 20012 urtea*



*Jolasten*

*Doinua: Gai honek badu mamia*

Zazpi urte zituela,  
haur txiki bat oraindik,  
bere etxetik lapurtu  
zuten gizon handi bik.  
Ordutik ez du izan zen  
haur harentzat tokirik,  
bizi da begiak mira  
atzean itsatsirik,  
arnasa ia geldirik,  
ta pultsua geldirik,  
bere punteria onak  
mantentzen du bizirik. (bis)

Inork ez zion galdetu  
beraz ez du izenik,  
ez du nortasunik,  
ez du izateko baimenik.  
Ez da hiltzeko makina  
bat gehiago besterik,  
da haragizko barrera  
bat taupadaz beterik.  
Inork ez zuen pentsatzen,  
ez sinisten lehendik,  
hainbeste bihotz taupada  
iraungo zituenik. (bis)

Gaur da hamaika urteko  
soldadu bat ta hazten,  
egunero heriotza  
sententziak idazten.  
Ikasi du ez sufritzen  
eta sufriarazten,  
bere bizitza salbatuz  
eta hiltzen ikasten.  
Erakutsi diote haur  
izaten ez ahazten,  
barrera atzean jarri  
ta gerrara jolasten. (bis)

Lehen tiroa huts egin  
zuen ta amorruan,  
erori zen borrero ta  
biktimen amarruan.  
Inozentzia guztia  
galdu zuen orduan  
hil zuen lehen gizonak  
egindako orruan.  
Hiltzeko gogoa beste  
ezer ez du barruan,  
hiltzaile bat baino ez da  
ume baten larruan (bis)



Hatz erakuslea ez du  
fusiletik askatzen,  
tiro egiteko norbait  
baino ez du eskatzen.  
Ezker eskuaz hasi da  
ezkutuan jostatzen,  
behatzak lurrean sartu  
eta lurra puskatzen,  
pixkanaka lurzoruan  
hutsune bat gastatzen,  
nahi gabe ari da bere  
hilobia prestatzen. (bis)



Diote hurrek jolastu  
egin behar dutela,  
bizitzarekin jolasten  
ibiltzen da horrela.  
Herio imajinatu  
ohi du oso bestela,  
hamaika urteko mutil  
armatu bat bezela.  
Sumatzean heriotza  
hurbiltzen ari dela,  
uste du apuntatu ta  
tiroz hilko duela. (bis)

